

KANALAK

Gure eguzki solar sistemak bezeroengana eramateko, garrantzitsua da kanalak ondo aukeratzea. Ez da nahikoa produktu ona izatea; gure balio-proposamena modu erraz eta eraginkorrean adierazi behar zaie herritarrei eta udalantzako erabakiak hartzen dituztelako. Horregatik, bezeroekin komunikatzeko eta produktuak saltzeko estrategia argia prestatu behar dugu.

Bezeroekin harremanetan jartzeko, Internet eta webgunea izango dira gure kanal nagusiak. Bertan azalduko dugu nola funtzionatzen duten gure argi solar sistemek, zeintzuk diren abantailak, eta zer proiektu egin ditzakegun. Gainera, zalantzak edo galderak izanez gero, formulario edo txat bat erabiliz, erantzun pertsonalizatua jasoko dute, beti ere bezeroek modu erosoan informazioa jasotzeko.

Produktuen salmenta ere webgunearen bidez egingo dugu, online denda baten bitartez. Bezeroek bertan eskaerak egin eta prezioak ikusi ahal izango dituzte, eta guretzat ere erraza izango da eskaeren kontrola egitea eta ordainketak modu seguruan jasotzea. Online denda batek aukera ematen digu herri eta udal desberdinetara iristeko, denbora eta distantzia oztopo izan gabe.

Azkenik, produktuak bezeroengana nola iritsiko diren ere planifikatuta dago. Banaketa posta edo garraio-enpresa baten bitartez egingo dugu, instalazioa edo argiak beren lekura iritsi daitezen. Horrek bezeroei erosotasuna ematen die eta gure enpresak modu eraginkorrean kudeatzen ditu eskaerak eta bidalketak, proiektua errentagarria eta fidagarria izanik.